

AURKEZPENA

Klima aldaketa eta kutsadura egungo problema larriak dira, munduaren jarraipena kolokan jarritz. Gero eta zabor gehiago produzitzen dugu, eta ez dugu ondo ontziratzen. Izan ere, **kaleak, hiriak, itsasoak... zaborraz beteta** daude, animalien eta petsonon kalterako, eta ezin da ukatu zerbait egin beharko litzatekeela.

“Almeida desactiva el sábado el protocolo al bajar los niveles de contaminación”


(El País)

“Alerta por basuras en Madrid para el 11 de noviembre” **(El País)**

Hori dela eta, kutsadura murrizten laguntzan saiatzeko, **gure enpresak zakarrontziak fabrikatzen ditu**. Beste zakarrontziak ez bezala, gure zakarrontziak sistema bat du zaborra banatzeko eta dagokion ontzian kokatzeko. **Inteligentzia Artifiziala duen scanner** baten bidez egingo dugu banaketa. Scanner horrek zaborraren konposaketa behatuko du, eta Inteligentzia Artifiziala baliatuz gogoratuko du, hurrengo aldietan azkarrago egin dezan. Zakarrontziak hiru ontzi desberdin izango ditu, plastikozko ontzia, papera eta kartoizkoa, eta organikozkoa. **Kaleetan jartzea da helburua**, hori dela eta kontainer tamainakoak izango lirateke, baina 2 kontainerren tamaina izango luke, espazioa aurreztuz.



[*ArgazkiarenEsteka](#)



[*ArgazkiarenEsteka](#)

Gure enpresa ez da oso handia izango, baina **Sozietate Anonimo** bat eratuko dugu, akzioak saldu ahal izateko. Inbertsioa nahiko handia dela badakigu, 60.121€ inguru behar baitira sozietatea eratzeko, baina hasieran %25

SA

baino ez da ordaindu behar. Hasierako diru hori lortzeko, mailegu txiki bat eta gure ekarpena erabiliko dugu. Gure ustez, gure ideia nahiko ona denez, **akzioak** azkar saltzeko gai izango gara, gaur egun nahiko garrantzia duen gaia delako eta ez dagoelako beste enpresarik hori egiten ari denik.

[*ArgazkiarenEsteka](#)



Gure enpresan 3 sail nagusi egongo dira, I+G+B, ekoizpen saila eta kudeaketa. Lehenengo sailan -I+G+B- zenbait ingeniario izango ditugu, gure ideia nola gauzatu pentsatuko dutenak. Horretaz gain, zein izango den kontainerraren tamaina, materiala, kolorea... pentsatuko dute, produktu errentagarria, erakargarria eta eraginkorra izateko. Bigarren sailan -ekoizpena- ideia behin hobetuta produktua sortuko dugu. Gainera, hornikuntzaz arduratuko da sail hau. Azkenik, kudeaketan enpresa sortzaileak eta zenbait aholkulari egongo gara, eta enpresaren publizitateaz, finantzazioaz, konponketa zerbitzua antolatzeaz.... arduratuko da.

[*ArgazkiarenEsteka](#)